

## **FREIRE TERTULIA**

Extensión → Extensioa, hedapena

### **Testuaren analisi orokorra:**

- Nekazari eta teknikarien arteko komunikazioaren azterketa
- Ikasle ta irakaslen arteko komunikazioa
- Nolakoa izan beharko luken agronomo ta nekazarin arteko komunikazioa
- Modernizazioan inguruko pentsaera, "si bien todo desarrollo es modernización, no toda modernización es desarrollo"
- Análisi linguistikoa. Saussure
- Luzapenari ematen zaion esanahi gnoseologiko okerra. Doxa.
- Pentsaera magikoa deuseztatzeko teknika landuak
- Ondorioak

### **Hitzaurrea**

Azaltzen du ea zer den Freirek testuan landu nahi duena:

Tekniko ta nekazarien arteko komunikazioa aztertzea

Agronomoaren analisi globala. Modu orokorrean ulertu haien ikuspegia

Extensio hitzaren erabilpen okerra

Nekazarien jarduna okerra dela erakustea

Extensio terminoaren barruan hezkuntza ez dago ongi ulertua

## **TESTUA**

### **Tekniko eta agronomoen arteko komunikazioa:**

Hezitzaile agronomoak ezin ditu nekazarien ezaugarriak aldatu haien mundua eta pentsamenduak ulertu gabe.

Agronomoek nekazariekin duten jarrera extensio jarrera da, eta horrek nekazaria objektu bihurtzen du, bestearen jakintza xurgatuz. Kritikotasuna eraldatu eta arazoei benetako erantzuna eman. Nekazariak jakin behar du beren inizatiba izaten, eta agronomoek askotan ez die uzten eta erakusten.

Benetan ikasitakoa praktikan jartzeko gai ez bada, ez du ezer ikasi. Ikastearen barne da ikasitako teoria praktikan jartzeko gai izatea. Dinamika gabeko klasetan emateiguen teoriataz ezgea goatzen hortik pixkatea, baño praktikan edo dinamikan bidez ikasitakoa askoz errexago geatzeazigu, ta hoi da benetan ikastea.

### **Extensio hitzaren esanahia:**

Freirek adierazi nahi duena da pertsona bera ez dela kontuan hartzen, hau da, nekazariak benetan ikusten dutela ez dutela kontuan hartzen, agronomoak esandakoa soilik aintzat hartuz. Honen arrazoia agronomoaren eskuko inposaketa edo domestikazioa da.

Komunikazioaren aurkako terminoa da. Extensioak ikaslea gauza moduan bilakatzen du, eta ez du ikaslearen hausnarketa bideratzen.

Adiestramiento, adoktrinazioa.

### **Hitzaren erabilpen okerra:**

Ez da edukiaren teoria ematea soilik, praktika garrantzitsua da. Informazio edo ezagutza hori gaizki transmititzea da.

Extensioa erabiltzen da irakatsi terminoaren sinonimo bezala, atzean dagoen inposaketa kontuan hartu gabe, eta hori da erabilpen oker nagusia.

Hedatzearen helburu nagusietako bat da ezagutza bat beste ezagutza batengatik ordezkatzeta.

### **Agronomoaren lanaren analisi globala**

Estrukturan sartzen da kultura, lana egiteko modua.. eta batean eragiten bada denetan eragiten da. Teknikaria haien lana aldatzen saiatzen bada, nekazariak erasotuak sentitzen dira, beren kultura minduta sentituz, eta hori aldatzen saiatu behar da. Eragin globala.

---

Guk besteari zerbait erakusten diogu bestea ignorante gisa hartuz. Azaldutakoa ez da egia bakar gisa azaldu behar, aukera guztiak erakustea izango litzake egokiena, egia bakarra guk pentsatzen duguna ez dela demostratuz. Guk bakarrik dena jakitea eta extensioaren bidez besteari transmititzea ezinezkoa da. Ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa izango litzake bidea egokia, bien arteko adostasun batera iritsiz, eta ez irakaslearen hitza bakarrik ontzat hartuz.

Hezitzaileon lana izango litzake gure ikasleei edo kolektiboari beraien ideologia jarraituz eta bere hitza ere aintzat hartuz ondorio batera iristen laguntzea.

Extensioa komunikazioaren aurkakoa da. (25.orriko paragrafoa). Haiak asko dute ikasteko, baina hezitzaileok ez diegu dena bukatuta eta eginda eman behar, ondoriora iristeko bidean laguntzea izango litzake egin beharreko lana.

Adibidez matematika ikasteko, bidea ez da irakasleak esandakoa bakarrik ontzat hartzea inposaketa modura. Ikaslea motibatze bideak erabili behar dira. Animaliak gustatzen bazaizkio, animaliekin lotutako dinamika bat egin beharko litzake matematika lantzeko. Amaiak esandako adibidez: hurrekin bizikletaz txango bat egin, txoriak ikusiz, eta bitartean matematikako gaiak sartu, denbora, abiadura... Horrek motibazioa ekarriko luke, eta haurraren ikaskuntzarako askoz ere eraginkorragoa da, gustorago eta errazago ikasiko du.

Adibide horrekin lotuta dago 27-28 orrietako zita bat ("el conocimiento por el contrario.... sobre la realidad", ta horren aurreko parrafoa). Amaian adibideak dioen bezala, haurren edo gure kolektiboen motibazioa lortu behar dugula dio testuko zati honek.

Ondorioa: dena komunikazio bidez egin beharko litzake, haurraren pentsakerak eta ideiak ere kontutan hartuz. Hala ere, batzutan beraien hitza zalantzan jartzea ez al litzake egokia izango? Batzuetan taldeak handiegiak dira denon interesetara jotzeko. Honekin lotuta, agian ez genuke denak gela berdinen eon behar ta interesan arabera izan beharko luke klasifikazio honek (Alaitz). Nik matematika aprobatazea ta nere ondokoak suspenditzea ez du esan nahi besteak nik baño inteligentzia murriztagoa akanik, interes falta izan daiteke. Baina Haur Hezkuntzan bezala hasi behar deu txoko ezberdinak eukitzen bai batxilergon ta bai unibertsitatean? Zein da irtenbidea??

Ez da ona 30 ikaslerekin irakasle bakarra egotea, ezinezkoa da denei atentzio berdina ematea. Ikasleok irakasleen izena ezagutu behar diteun bezala, guke eskubidea akau irakaslek gure izenak ikastea, ez gea zenbaki bat bakarrik. Gure lana dan bezala lanak itea, beraiei kaso itea... beraien lana da beaien egitekok betetzea.

Batzun aldetik ikustea gogoa eta esfortzua horretarako, baino beste batzun aldetik ez. Komunikazioa eta entzutea ezinbestekok dia, ta horretako beharrezkoa da behintzat izenak jakitea, hurbiltasun minimo bat eotea.

Honen irtenbidea izango litzake hezitzaile gehio ta ikasle gutxigo eotea gela berdinen?(Amaia, Alaitz...) Edo guk esfortzu haundigoa in behar deu errealitatekin topo iteko? Lanea jutegeanen ez litzake dena ain errega izango (Ane). Dena ezta gure gustokoa izango beti, ta hortara ohitzen saiatu behar da. Nahizta gauza batzuk guri ez gustatu, asko beharrezkok dia bizitzeko. Horiek moldatu beharko genituzke pixka bat erakargarriago egiteko eta gure motibaziorako.

Txikitatik erakuste badigue gure burua ondo ezautzen, hortik urte batzuta jakingodeu gure beharrai erantzuten eta haiek asetzen. Behar kolektiboa kontun hartzea garrantzitsua da, eta ez pertsona konkretu batzuen interesak bakarrik soilik.

---

Freirek zerkin lotzen du komunikazioa? Ezagutza (ikasle ta irakaslen arteko komunikazioako beharrezkoa da besteanganako ezagutza), elkarrizketa (bi norabide ditu elkarrizketak → ikaslearen hitza ere aintzat hartu behar da, baztertu gabe), hausnarketa (garrantzitsua da, orduarte genitun sinismenak zalantzan jartzeko eta sinesmen edo errealitate berri bat sortu ahal izateko. Jarrera kritikoa.).

Hezkuntza perfektua lortzea ez da erraza, ia ezinezkoa da bakoitzaren testuingurua kontuan hartzea. Beraien motibaziotik eta hausnarketa kritikotik abitze bagea, eta ez extensiotik, sistema pixkanaka alda dezakegu.

**Desvelamiento** (36.orrialdea → cuando alguien más se aproxima.... alcanzará su desvelamiento). Ezagutza deskubritzen duela esan nahi du, ezagutzara iristen dela. Benetako komunikazioarekin lortzen da hau, bere beldurrak kenduz iristen baita askotan ezagutzara.

**Laburpena:**

Bi termino nagusi erabiltzen dira: extensioa eta komunikazioa. Extensioa litzake ideia batzuen inposaketa bat, eta komunikazioa litzake pareko irakaskuntza edo heziketa bat, elkarrizketa bidez ematen dana.

Komunikazioa nola izango litzaken perfektua aipatu de  $\rightarrow$  beraien interesak kontun hartu, ta bestela beraien interesa eta motibazioa lortzen saiatuz.